

leiOA

Udal aldizkaria

Nov. 2001 Azaroa · 3. Zbk.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO UDALA DE LA ANTEIGLESIA
DE LEIOA



**“Leioa 475”:
Todo un
espectáculo**

Haurren altxorrak

Enseres y voluminosos

Udal Kontserbatorioa



Argitaratzailea>Edita:
Leioa Elizateko Udala
Ayuntamiento de la
Anteiglesia de Leioa
Elexalde, 1
48940 Leioa · Bizkaia

Zenbaki interesgarriak:
Teléfonos de interés:

Leioako Udalak
94 400 80 00
Ayuntamiento de Leioa

Udaltaizingoa
94 400 80 21
Policía Local

Erregistro Orokorra
94 400 80 20
Registro General

Ibilgailuak
94 400 80 27
Vehículos

Bulego Teknikoa
94 400 80 05/06
Oficina Técnica

Euskara Zerbitzua
94 400 80 44
Servicio Euskera

Gizarte Ongizatea
94 480 13 36
Bienestar Social

Udal Kiroldegia
94 400 80 59
Polideportivo Municipal

Aterpe
94 480 55 17
Información Juvenil

Sakoneta Kultur Aretoa
94 480 46 60
Aula Cultura Sakoneta

Pinuetako Udal Bulegoa
Pinueta Kultur Aretoa
94 464 67 22
Of. Municipal de Pinueta
Aula Cultura Pinueta

Udal Euskaltegia
94 464 00 02
Euskaltegi Municipal

Udal Konserbatorioa
94 463 86 83
Conservatorio Municipal

Recogida de enseres y voluminosos

Oraindik orain
Leioako Udalak,
botatzeko diren
tresneria eta tamaina
handiko
gauzak (altzariak)
eta etxetresna
elektrikoak)
batzeko sistema
aldatu du.

Hasta hace bien poco, los y las leioztarras podíamos desprendernos de nuestros enseres depositándolos en la vía pública junto a los cargues de basura los martes por la noche. Este sistema, además del daño estético que producía en nuestras calles, posibilitaba que vecinos de municipios colindantes se aprovecharan indebidamente del servicio y suponía un depósito indiscriminado de cientos de toneladas de residuo en el vertedero, dado que nada de lo que se recogía se destinaba al reciclaje. Sin embargo, desde mayo de este año el sistema ha cambiado totalmente.

La implantación de dos Garbigunes por la Diputación Foral en zonas muy próximas a Leioa, uno frente al Eroski de la Avanzada y el otro cerca de Fadura, permite hoy que los vecinos y vecinas de Leioa depositemos nuestros enseres y voluminosos gratuitamente en estos lugares en un horario amplio durante seis días

por semana. Es por tanto una obligación de los leioz-tarras que en el caso de deshacernos de nuestros enseres y voluminosos lo hagamos por nuestros propios medios llevándolos al Garbigune, desde donde se introducen en circuitos de reciclaje.


Ahora bien, aunque la apertura de los Garbigunes por todo el territorio de Bizkaia ha motivado que la mayoría de los Ayuntamientos prescindan de los respectivos servicios de recogida de enseres, el Ayuntamiento de Leioa ha optado por no eliminarlo, si bien lo ha reestructurado radicalmente. De esta manera, el Ayuntamiento de Leioa pone a disposición de sus vecinos y vecinas un servicio complementario y subsidiario al depósito en Garbigune que consiste en un sistema de cita previa llamando al teléfono 620.284.348. Este servicio se realiza únicamente dos veces a la semana de tal manera que, una vez con-



certado el día de retirada en función de las llamadas existentes, el mueble o electrodoméstico es retirado por una empresa contratada por el Ayuntamiento una vez es depositado por el ciudadano en el portal de su propio domicilio. Pero este sistema, que implica una espera media de una o dos semanas, únicamente debe ser utilizado en caso de que resulte imposible acudir al Garbigune para deshacerse de los enseres y voluminosos.

La implantación del presente sistema de recogida de muebles y electrodomésticos, Garbigune y subsidiariamente cita previa,

**Gauzak Garbigunean
uztearen osagarri
izateaz gain, haren
ordezkoa egiten
duen beste zerbitzu
bat ipini du Leioako
Udalak: aldez aurreko
hitzorduaren
sistema; horretarako,
620 284 348 telefonora
deitu beharko da**



Datos de recogida

KG/MES	MAYO	JUNIO	JULIO	AGOSTO	SEPTIEMBRE	OCTUBRE
Recogidos	15.655	11.302	8.469	9.500	11.970	10.364
Reciclados	10.613	8.142	5.889	8.040	8.730	8.704
% reciclaje	82,95%	72%	69,54%	84,63%	72,93%	83,98%



implica, por supuesto, la más estricta prohibición de depositarlos en la vía pública o en los contenedores de basura (RSU). La infracción de esta prohibición está sancionada con una multa de hasta 75.000 pesetas.

Los logros obtenidos desde la implantación del nuevo sistema han sido muy reseñables. Así, si desde un punto de vista estético prácticamente se ha elimi-

nado ese aspecto sucio y poco grato a la vista que acompañaba nuestras calles atiborradas de muebles día tras día, desde un punto de vista medioambiental el grado de reciclaje de los enseres obtenido supera el 75%, con lo que el depósito en vertedero se ha reducido drásticamente.

Es por todo esto que el Ayuntamiento de Leioa solicita, una vez más, a sus vecinos y vecinas su con-

**Zertan esanik ez,
altzariak eta
etxetresna elektrikoak
batzeko
sistema honek
—Garbigunea
eta horren
ordezko modura,
aldez aurreko
hitzordua—
esan nahi
du, erabat debekatuta
dagoela
haien bide publikoan
uztea**

cienciación en cuanto al buen uso de los servicios públicos, Garbigune y recolección subsidiaria mediante cita previa, en aras de lograr mejorar aún más si cabe los objetivos de un Leioa más limpio y sostenible. ■

2.000 haurren altxorrak lurperatu ziren

Lioako 475. urteurrenenaren ospatzeko asmoz, udalerriko ikastetxe publikoetako eta pribatu batzueta 2.000 haurren inguruk hartu zuen parte Udalak antolatu zuen "Leioak altxor bat dauka" ekimenean pasa den urriaren 31an. Mezu bat idatzi os-



Foto: ASIER BASTIDA

tean, gutunak, liburuak, argazkiak, irudiak,... denetariko gauza bereziak sartu zitzuten Leioako ikasle gazteenek, herriaren erdigunean egokitutik zulo handi batean. 25 urte barru berriro aterako dituzte lurperatutako materiala guztia eta jabeei itzultzeko erronka hartu du Leioako Udalak. Txikienek ezezik, heldu batzuek ere gauzak sartu zitzuten zuloan. Horien artean Karmelo Sainz de la Maza alkateak, Udalaren izenean, "Leioa historian zehar", Ana Lopez Asensio historialariak idatziriko liburua, eta "Leioa Berbarik Berba", Iñaki Gamindekin herriko euskeraren gainean egindako lanaren ale bat, sartu zituen. Haurren kutxak urte guzti hoietau egoera onean mantentzeko helburuaz, sei edukiontzieta lurperatu zitzuten ekimenaren antolatzaileek. ■

Kepa Junkerak sekulako giroa sortu zuen

Kepa Junkera trikitilarri bilbotarrak sekulako giroa sortu zuen Kandelazubietako polikiroldegian, Leioako 475. urteurrena ospatzeko pasa den urriaren 31rako programatu zen kontzertuan. Guztira, 600 pertsona bildu zen gau berezi hartan trikitixaren soinuekin elkar

goatzeko asmoz. Izan ere, publikoak gogo handiak zituen azken lanaren gaiak entzuteko eta "Bilbao 00:00" aurreneko diskoaren abesti alaiak berriro ere gogora ekartzeko. Gauzak horrela, Junkerak "Maren" titulupeko bere azken lanaren abestiak jo zituen hain gustora sentitu zen jendaurrean. Leioakoa, munduko trikitilarri onenatarikoa den Kepa Junkerak zuzenean jo zuen lehen



Foto: ASIER BASTIDA

kontzertua izan zela aipatu behar da, Getxon egindako azken diskoaren aurkezpena kontutan hartu gabe. Kandela-zubietako entzunaldian orduta eta erdiko irau-pena izan zuen eta azkenengo momentuetan, jendea bete betean sartu zen kontzertuan dantzaka hasi baitzen trikitilarriak jotako biribilketen laguntzaz. Erromeriko giro horrekin amaitu zuen bere kontzertua Kepa Junkerak. ■

Buena respuesta del público en los actos del Leioa 475

5.000 personas presenciaron el espectáculo de calle, organizado con motivo del 475 aniversario. El montaje de Hortzmuga resultó un éxito. Además de ofrecer un recorrido didáctico por la historia de Leioa, resultó de una gran plasticidad. La puesta en escena tuvo un valor añadido por el mero hecho de ser efímero. La compañía vasca lo ideó para ponerlo en escena únicamente durante un día.

Coordinar a las 400 personas—40 de ellos actores profesionales—resultó complicado, pero todo salió según lo esperado. Lo más llamativo fueron las danzas verticales, realizadas en las paredes en las que se construirá el futuro Centro Cultural. También se ganó una buena salva de aplausos toda la pirotecnia utilizada. Pero, al margen de los recursos más llamativos y hasta espectaculares, el montaje de Hortzmuga tuvo su carácter didáctico. El enfrentamiento entre el carácter antiguo y rural con la modernidad resultó aleccionador, porque el carácter terciario e industrial se imponía, sin olvidar esa parte tan importante del agro. La representación del partido del Athletic de Bilbao, equipo



Foto: ASIER BASTIDA

que comenzó a jugar en Lamiako, o la Maskarada de ese mismo barrio, enraizaron con dos símbolos que despiertan el cariño, la atracción y el respeto popular.

Aunque lo más importante y aleccionador fue que el futuro estuvo representado por el propio público, por los habitantes que participarán en el desarrollo de un pueblo convertido en una pequeña ciudad. ■

**Parte hartu zuten
400 pertsonak
koordinatzea
-haietako
40 aktore
profesionalak ziren-
zail samarra izan
zen, baina
denak irten
zuen aurreikusi
zen legez**

Éxito de público en la Feria de Artesanía

La Feria de Artesanía atra-jo a 10.000 espectadores al certamen más antiguo de Bizkaia. El medio centenar de puestos colocados en Kandela-zubieta consiguieron sumar hasta 4 millones de pesetas en ventas directas. Entre los que más atrajeron la atención del público estuvieron el jade de México, la joyería o

los gorros reversibles de tela. El apartado gastronómico, como suele ser habitual en este tipo de certámenes, atrajo a gran cantidad de público y concentró buena parte de las ventas. Entre la decena de 'stands' gastronómicos destacaron los licores, patés, miel, queso, bombones y pan, entre otros. ■



Foto: ASIER BASTIDA

Unos 5.000 espectadores asistieron al certamen 'Leioa Lantzen 475 urte', que se

desarrolló entre el 3 y 4 de noviembre. La afluencia de público desbordó las previsiones más optimistas de una muestra cuya finalidad era ver la evolución de las diferentes profesiones, en los últimos quinientos años. El público infantil disfrutó, sobre todo, con el artesano que elaboraba arcos, con el del hojalatero y con el juego de la baqueta medieval. Otra de las cuestiones que más llamó la atención fue la puesta en marcha del molino Elexalde. ■



REUNIÓN EN ARTAZA. Ibarretxe y su esposa, con el Alcalde de Leioa.

Ibarretxe visita la exposición "Leioa 475"

Joan den urrian Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan genuen, Artaza jauregian irekita zegoen "Leioa 475" erakusketa ikusten. Lehendakariari Leioako Alkateak, Karmelo Sainz de la Mazak, egin zion harrera, ostean erakusketaren gidari egin zuela erakusketan zehar, Leioako Udalerraren iragana ezagutarazteko. ■



- **0 eta 16 urte bitartean
kalitatezko hezkuntza euskaraz.**
- **Ingelera 4 urtetik.
Frantsesa DBHtik.**
- **Zerbitzu ugari: autobusa,
jantokia, merienda.**
- **Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.**
- **Leioako Ikastolen Elkarte-
partaideko ikastola bakarra.**



Deitu eta informa zaitez inolako konpromezurik gabe.

Tlf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07 Fax: 94 464 22 05

Helbidea: Artatza auzoa 84

Helbide elektronikoa: leioa@ikastola.net

**Informazioa gehiago gure WEB orrian:
www.ikastola.net , Ikastola zertan den atalean.**



Erandiorekin hartu-eman estuak

Los Alcaldes de Leioa y Erandio firmaron el acta de hermanamiento simbólico entre ambos municipios en el Palacio Artatza, con motivo del 475 aniversario de la fundación de la Anteiglesia de Leioa, tras separarse de la de Erandio. Ambas corporaciones están llevando adelante planes en común y han adquirido el compromiso de estrechar aún más la colaboración mutua.

Leioako urteurrena ospatzeko egun han-dian, Erandioko agintarietik ere haien le-kua izan zuten ospakizunetan. Artatza jauregian elkartu ziren bi herrietako agintari-riak, Karmelo Sainz de la Maza eta Mikel

Arieta-araunabeña Alkateak buru zirela. Alkate ez gain, gainontzeko zinegotzi gehienak ere izan ziren herrien anaitasunaren hitzarme-na sinatzeko antolatu zuten ekitaldian. Kargu

**Alkateek,
etorkizunera
begira elkarrekin
laguntzeko
konpromezua
hartzea erabaki
zuten**

publiko ekin batera Leioako eta Erandioko Udal idazkarriak eta baita herri bakoitzeko abadeak ere egon ziren. Alkateek bat egin zuten bi herrien artean amankomuneko gauza asko dagoela esaterakoan eta etorkizunera begira elkarrekin laguntzeko konpromezua hartzea erabaki zuten. Leioako alkateak makila bat eta zilarrezko plaka jaso zituen bitartean, Erandiokoari Goikoako Andra Mari parrokiaren koadroa eman zion Sainz de la Mazak. Eleiza horretan lego ke Erandioko jatorria eta, azken finean, Leioakoa ere. Izan ere, 1526. urteko arte Erandioko elizatearen barruan zegoen. Banaketaren ostean bakoitzak bere bidea hartu zuen baina azken hamarkadan bien arteko erlazioa erabat areagotu da. Bi herriak jada lotuta daudela erakusteko adibide asko daude. Esate baterako, enpleguaren kontuetan sortu berri den Beharginzta zentroa Leioan kokatuta dagoen arren, erandiozarrei ere ematen die zerbitzua. Azpiegiturako proiektu ugari ere amankomunak dira. Horietako bat Santimami auzuneko ospitalaren eskeletoa kokatuta dagoen lur eremua litzateke. Bi udal korporazioek hiri bilakaerarako akordio bat haien osoko bil-kuretan onartu zuten eta komenioaren arabera, Leioako Udalak Erandioko lur zatiaren ku-deaketaren ardura jasoko du, baina onurak bi aldeetara joango dira, beti ere, herri bakoitzak lur hauetan dituen metro karratuak kontutan izanik. Sinatu duten beste akordio bat Dow enpresaren ondoko lur industrialarena izan da. Kasu honetan, biei gune osoa berriztatzea ezezik, gaur egungo pabeloi-en sarbideak hobetzea ere interesatzen zaie. ■

Ikasle kopurua goruntz doa lehen aldiz

Leioa da, Euskal Estatistika Institutuaren azken datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herrikin gazteena. Hau dela eta, 2001-02 ikasturtean 2 eta 20 urte tarteko adina duten ikasleen matrikulazio kopuruan eman den joera uertzeko da. Izan ere, azken hamabi urteetan kopuruak beheruntz egin du pixkanaka,

En la Escuela Pública de Leioa se quieren desarrollar las aptitudes del alumnado, siendo los objetivos que adquieran valores personales y se preparen para que puedan adaptarse a los cambios de la sociedad

baina ikasturte honetan, matrikulazioa 703 ikasletik 708ra igaro da ikastetxe publikoetan. Haur hezkuntzako dantza dagokienez, 252tik 302ra igo dela azpimarra daiteke.

Leioako eskola publikoan B eta D ereduak ematen dira Haur, Lehen eta Bereziko

Hezkuntzetan. Ikasturte honetan gai guziak euskeraz hutsez ikastea erabaki dute-nak 416 izan dira eta ikasleek gastelerarekin nahastearen alde 292 haurrek bere izena eman dute. Beharrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa, A ereduan 449 ikaslek izena eman duten bittarrean, 276 ikaslek D eredu-a aukeratu dute. Lanbide heziketari dagokionez Ostarilaritza eskolan 269 pertsona A ereduan apuntatu diren bittarrean, beste 33k D eredurajo dute. Jose Miguel de Barandiaran Institutoko 85

ikasleek gasteleraz hutsez ikastea aukeratu dute.

Leioako eskola publikoan ikaslegoaren gaitasunak garatu nahi dira, balio pertsonalen eskuratzea eta gizartearen aldaketetara moldatzeko prestatzea direlarik helburu teknologia berrikuntzan, arazo kolektibo berriez konzentziatzerako orduan eta Europaren integratzeko. Doako hezkuntza izateaz gain, eskola-elkartearen partehartzea, irakasle guztien integrazioa eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntza es-kaintzen. ■

Realización de los Censos de Población y Vivienda

Recientemente ha comenzado en nuestro municipio, al igual que en todo el Estado, la realización de los censos de Población y Vivienda. El Instituto de Estadística realiza cada decenio estos censos, en los años terminados en 1. Estos censos son secretos y los datos recogidos en ellos no podrán ser publicados. Los Censos de Población y Vivienda son una estadística de cumplimentación obligatoria y por eso se solicita la colaboración de los vecinos y vecinas leiozarras a la de hora de ofrecer los datos solicitados por los agentes censales. Por otra parte, como el padrón actual es continuo, se deberán comprobar los datos del padrón que aparecerán en una hoja que se facilitará, para hacer cambios en el caso de ser necesario y firmar el documento. Las modificaciones más habituales son las referidas al nivel de estudios y al número del DNI de los jóvenes. Los agentes censales, que recorrerán los domicilios para recabar los datos apuntados, irán debidamente identificados y dejarán los impresos para pasar posteriormente a recogerlos. ■





Unas 150 empresas se instalarán en el parque empresarial de Ibarra Barri

Bulego-eraikin bi altxatuko dira, etorkizunean Ibarra Barriko Enpresa

Jardueretako Parkea izango denera joateko errepidearen ertz bietan, alde banatan kokatuta eta oinezkoentzako zaldain batez lotuta. Parkean 150 bat empresa jarriko dira.

El proyecto es ambicioso y supondrá la generación de nuevo empleo en Leioa, a la par que servirá para regular urbanísticamente esa zona deteriorada que, en el futuro, enlazará con el bulevar de Udondo.

En el área, situada en terrenos de la Dow Chemical, se construirán más de un centenar de pabellones en una superficie que supera las cinco hectáreas. Las cuatro hileras de naves dispondrán

de un amplio espacio interior para carga y descarga, y hasta 450 parcelas de aparcamiento.

La zona es muy céntrica, al estar situada a escasa distancia de la calle Sabino Arana y cerca de la estación del metro de Leioa. Pero los beneficios de la creación de este parque empresarial irán más lejos. Por citar algunos, se procederá a soterrar una línea eléctrica aérea de 30.000 Kw y también se re-

La zona es muy céntrica, al estar situada a escasa distancia de la calle Sabino Arana y cerca de la estación del metro de Leioa

solverán, definitivamente, los vertidos de aguas pluviales y fecales de las viviendas y empresas situadas hoy a lo largo de la calle Sabino Arana.

El Ayuntamiento de Leioa dispone, además, de un gran solar en una zona del P.A.E. Ibarra Barri. Allí se puede construir 1.900 metros cuadrados de nave, con otros 800 metros cuadrados de entreplanta. Esa superficie será de propiedad municipal. ■

Datos del P.A.E. NEINOR

Superficie total: 55.100 metros cuadrados

Espacios libres y zonas verdes: 37.008 metros cuadrados

Superficie de naves industriales: 15.858 metros cuadrados

Área de oficinas vinculadas

a naves industriales: 4.479 metros cuadrados

Superficie de oficinas: 4.886 metros cuadrados

Locales comerciales y exposición: 2.714 metros cuadrados

Previsión de empresas instaladas: 150

Erdu berbetan hitzarmenak

1 997an Leioako Udalak Euskara Eskura egitasmoa jarri zuen martxan. Herrian haur eta gazteen aisiaidetan aritzen ziren taldeetan euskararen erabilera, bai idatzia bai ahozkoa, bultzatzea zuen helburu.

Egitasmoak izan zuen harrera eta emaitzak i-kusita herriko gainontzeko talde eta elkartetara zabaltzea aproposa ez ezik beharrezkoa ere bazela ikusi zen. Izan ere, nagusiki hezkuntzaren bidez, baina baita herriko euskaltegiak bidez ere, gero eta gehiago dira euskara dakiten herritarak; baina, halaber erabilera mailak ez du gora egin ezagupenak egin duen neurrian.

Hori dela eta, une honetan garrantzia handia du euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa martxan jartzeak, eta ez soilik administrazioan edota hezkuntzan, baita herri elkarre eta erakundeetan ere, herri honen izaeragatik bere biziogarrantzia baitaukate halako taldeek hizkuntza jokabideetan ez ezik giza harremanei dagokion guztian.

Lehenengo urrats bezala herriko taldeen diagnostikoa egin zen, elkarre edota erakunde bakoitzak daukan hizkuntza egoera ezagutzeo. Lan hori aurrera eramatzen 5 bisitari izan genituen, herrian dauden 142 taldeetako pasatu zirelarik. Talde hauetako guztiak 24 taldetan ezin izan zuten diagnostikoa egin, zenbait kasutan taldea desagertuta zegoelako (19 kasutan) eta beste batzuetan ez zeudelako horretarako prest (5 kasutan).

Diagnostikoa egitearekin batera, talde bakoi -tzak daukan hizkuntza egoera kontuan izanik, hainbat hitzarmen proposatu zaie, elkartetan euskararen presentzia eta erabilera, idatzia zein ahozkoia ziurtatzeko eta bultzatzeko.

Esan bezala hitzarmen hauek mailakatuak eta borondatezkoak dira, horrela taldeak ia erabat er-

daldunak badira A hitzarmena proposatzen zaie, hau da, ageriko elementuetan euskara gutxienez gaztelaniaren maila erabiltzea, esate baterako megafoniako mezuetan, aurkezpenetan, propagandan eta abar. Horretarako Euskara Zerbitzuak hainbat laguntza eskaintzen die talde horiei aurkezle euskaldunak, itzulpen edota zuzenketa zerbitzua, errotsuluak aldatzeko dirulaguntzak bestekak beste. Taldea zenbat eta euskaldunagoa izan eskatzen zaion konpromisoa ere orduan eta han-diagoa da.


Elkarritzketatutako 118 taldeetako, Udal era-kundeak alde batera utzita, hauek Udalaren era-bakiak bete behar baitituzte, 71k hitzarmenen bat sinatzeko asmoa azaldu dute, 24 ez dute sinatu eta 7 taldek oraindik ez du erantzunik eman.

Hitzarmen bat sinatu duten 71 taldeetan artean 27k A hitzarmena sinatu dute, 33k B hitzarmena eta 11k D hitzarmena.

Erantzunak jaso ondoren hurrengo urratsa hitzarmenak sinatzea izan da, eta hori abenduaren 1ean egin zen Leioako Musika Eskolako auditorioan. Kontuan i-

zan behar dugu hau lehenengo urratsa baino ez dela izan, eta hitzarmena sinatu duten 5 taldeetako plangintza berezia eraman nahi dela aurrera jarraipen eta lankidetza estuagoaren bidez erabat euskaraz aritzeko urrats esanguratsuak emanez, aurrerago prest leudekeen gai-nontzeko taldeetan ere aplika litezkeen urratsak.

Euskara denon ardura delako, denon artean, bakoitzak ahal duen neurrian, baina etenik eta atzerriko pausorik gabe Leioan euskarari leihotz bat ireki nahi diogu, ERDU gugaz euskaraz BERBETAN. ■



La Feria Agrícola y Ganadera cumple su decimosexta edición

Leioako Nekazari eta Abeltzaintza azokak 80 baserritar eta 50 abere jasoko ditu datorren igandean, hilak 16, bulebarrean eta bere inguruetañ, goizeko hamarretatik arratsaldeko hiruak arte. Azokan ere aintzineko ogibideak ezagutzen emango ditu, tartean, abere batzuei burdinkia jarriko die. Bestalde, aurtengo txakoli uztaren aurkezpena egingo dute eta sagardoa, gaztaia, arrainak, txakolia, zizak eta emuaren okela doan dastatzeko aukera egongo da.



Cerca de 80 expositores agrícolas y 50 cabezas de ganado tomarán parte en la decimosexta edición de la Feria Agrícola y Ganadera de Leioa, que se celebrará el domingo día 16 de diciembre en el entorno del bulevar de la localidad y parte de la subida al Ayuntamiento, organizada por Leioa Kirol Zaleak y Amets Berria en colaboración con el Ayuntamiento y el patrocinio de la BBK. En el apartado ganadero, el público podrá contemplar 40 vacas y 12 bueyes de especies como la limousina, parda alpina o suiza, asturiana, pirenaica o frisona, que vendrán de cuadras del valle de Txorierri, Mungialdea,

Getxo, Urduliz y Gamiz-Fika. En representación de Leioa tomarán parte los ganaderos Iñaki Agirre, Juan Luis Bilbao y Juan Mari Barandika. No faltarán tampoco José Mari Zugazaga, de Gamiz-Fika, que ganó el primer premio en reses de raza pirenáica en el certamen de Zamudio, ni el mungitzarra Unibaso con sus cabezas vacunas de raza frisona, con los que consigue numerosos premios. El público podrá también contemplar en esta feria otro tipo de animales como cabras, ovejas, emús y seguramente, una manada de ciervos procedente de una granja de Beasain. Como novedad este año, el evento leioztarra servirá de marco para dar a conocer antiguos oficios. A partir de las 12,30 horas se realizarán demostraciones "in situ" de herraje de ganado con ayuda de un potro portátil y enyugaje de bueyes, además de proceder a ordeñar a mano varias vacas. En el aspecto agrícola, cabe destacar la presentación de la cosecha del txakoli de 2001, así como las maquetas y planos del Palacio Mendibile, en el que se va a instalar la futura sede del Consejo Regulador del Txakoli en Bizkaia. A los clásicos productos de Euskalerria como los quesos, hortalizas, chacinería, flores y plantas, pan y pastel vasco, miel, paté y frutas, se les unirán productos de caza escabechada de un expositor de Zaragoza y queso de Asturias. Los visitantes de la feria podrán degustar de manera gratuita txakoli, sidra y queso de Idiazabal, setas, peces y emú. Por otro lado, los organizadores convocarán el III Concurso de queso de Idiazabal reservado para productores vizcainos, con premio de 50.000 pesetas y trofeo para el ganador. Con motivo de la celebración de la feria, que se desarrollará de 10,00 a 15,00 horas, se cerrará al tráfico rodado la vía lateral de acceso a la Universidad. ■

Como novedad, este año el evento leioztarra servirá de marco para dar a conocer antiguos oficios

JOSE LUIS BILBAO, **Leioa Kirol Zaleak** taldeko kidea

“Aparteko salmenta lortzen dute baserritarrek azoka honetan”

Jose Luis Bilbao Leioako azoka antolatzen duen tariko bat da, Kirol Zaleak taldearen izenean. Nekazari eta abeltzantza munduak nahiko ondo ezagutzen ditu eta azokaren antolakuntza lana hasieratik hartu zuen.

Zer nolako unean aurkitzen da Leioako Nekazari eta Abeltzantza azoka?

- Gure azoka nahiko kontsolidatuta dagoela esan daiteke. Hala ere, loak ezin gaitu hartu behar, berriztatzeo premia dagoelako. Zentzu honetan azpimarratu beharko litzateke Udalak egiten duen esfortsua azoka hau nortasun propioa izan dadin. Dena den, mota honetako ferietan maneiatzten diren aurrekontuak ikusiz gero, gurean diru eskasa erabiltzen da. Kalitate handiko abereak, batik bat, Gernika, Abadiño eta Markina aldeetan daude eta Leioara ekartzeko diru gehiago behar dugu.

Gure azokak badu Bizkaian osperek?

- Dudarik gabe. Herrialde osoan duen famaren adibiderik argiena zera da: baserritar asko azoka hasi baino bi hilabete aurretik deikia dabilela hona etortzeko. Nekazari atalean ere onenetarikoak datoxtze, tartean, Adela Andikoetxea urduliztarra eta Jose Exebarria gatikarra. Gainera, urtero 12.000 pertsona inguru biltzen da azoka inguruan. Halan eta guztiz ere, ferian sortzen den giroa da garrantzitsuena.

Zelango salmentak lortzen dituzte baserritarrek?

- Nahiko pozik agertzen dira. Iaz partehartzaile askok postua altxatu izan behar zuten arratsaldeko ordu batetan produktu guztia erosi zutelako. Azoka honetan aparteko

salmenta lortuko dabela aurrikusten dute baserritarrek.

Azokaren kokapena ere gustokoena da haien artean, ezta?

- Horrelaxe da, bai. Seguruenik, Errekalde eta Jose Ramon Aketxeko enparantzak bat eginda Bizkaian dagoen kokapenarik bikainena da espazio handia sortzen baita, erakusleak eta jendea erosu sentitzeko asmoz. Baserritarrek inoiz ez dutela hau bezalako leku apropositik uski azoka bat antolatzeko esaten digute.

Zer nolako aldaketak egitea nabiko zenduke feria honetarako?

- Abeltzantza atalean, espezie desberdinak erakusketa monografikoa egitea dugu helburu, hau da, urtero espezie zehatz baten Euskalerrriko idi edo behi onenen aurkezpena Leioan egitea nahi dugu. Azokari izugarrizko ospea emango lioke.

Zelango egoeran dago nekazaritza eta abeltzantza gure herrian?

- Leioan, biak modu testimonialean aurkitzen dira, Atxalandabasotarrek Lertutxen aldean duten frisoi espezieko behien etxaldea kontutan izan gabe. Kontsumo propioaren aroa erabat amaitu da.

Beraz, Leioa biri handi bateko izaera hartzen ari dela deritzozu?

- Bai, hirigintza arloan hazkundea eman da nabaria denez. Hala ere, nekazaritza eta abeltzantzaren aintzineko egoera berdintsua zen. Duela urte batzuk, baserritarren artean inkesta bat egin nuen eta 70. hamarkadan soilik bi edo hiru familiek bere dedikazioa jarri zuten mundu horretan. Gainontzekoek baserririko kontuak izateaz gain, beste lan bat zeukan. ■

Estartetxeko 64 etxe sozialak inauguratu dituzte

Visesa elkartea publikoak Estartetxe kalean egin dituen 64 etxe sozialak inauguratu zituen Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizartegintza sailburuak. Proiektu honen aurrekontua 614 milioi pezetakoia izan zen. Edifizioa kokatuta dagoen lurrazen jabea Leioako Udalarena zen baina Eusko Jaurlaritzari eskaini zion etxe sozialak egiteko.

Estartetxeko pisuak kalitate ezinhobean egin dituzte eta bere prezioak 5.300.000 eta 9.700.000 pezeta artean daude, metro karratuaren eta ezaugarrien arabera. Pisu bakoitzarekin garaje bat eta ganbara ere emango dituzte. Etxebizitza bi, gainera, elbarrientzat egokituta daude. Etxebiderekin sinatutako hitzarmenari dagokionez, edifizioaren azpikaldean, 1.557 metro karratu hartzen dituen hiru egoitza erabiltzeko aukera izango du Leioako Udalak. Izen ere, hortxe jarri dute nagusientzako eguneko zentro berria. ■



Sabino Arana, 48 . 48940 LEIOA
aterpe@leioa.net

Interneteko sarbidea eta formazioa eskaintzen duen zentru-sarea



Red de centros de acceso
y formación en Internet

Tel.: 944 805 511
Sabino Arana, 48 - LEIOA



www.kzgunea.net

**Ikas ezazu Interneten era errazean
nabigatzen. Internetek eskaintzen
dizkizun aukera guztiek eskura izango
dituzu, etxetik gertu eta dohaienik gainera.**

**Aprenda a navegar por Internet
de una manera sencilla y gratuita.
Podrá acceder a todas las posibilidades
que le ofrece Internet y además cerca de su casa.**

euskadi
informazio gizartean

José Ignacio Sarriá, responsable del Conservatorio Municipal

“La música impregnará la vida de la mayoría de los vecinos de Leioa”

José Ignacio Sarriá, responsable del Conservatorio Municipal, está convencido de que la cultura musical aumentará en Leioa, porque cada vez a más familias les interesa que sus hijos aprendan a tocar algún instrumento. La marcha de este centro constituye un ejemplo que siguen otros muchos hasta fuera de la comunidad autónoma.

¿Cuáles son los planes de futuro?

Nuestra meta, de aquí a 10 años, es contar con unos 650 alumnos como máximo. La Escuela de Música (enseñanza no reglada) estaría compuesta por 520 alumnos y el Conservatorio ejercería como Conservatorio de Grado Medio de la Margen Derecha, integrado en la Red Pública de Conservatorios de Grado Medio, que esperamos sea creada recientemente por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

¿La formación instrumental del alumno hacia dónde se orienta?

La formación instrumental de nuestros alumnos está o-

rientada fundamentalmente a la expresión musical colectiva, en donde los alumnos aprenden a poner en práctica la técnica instrumental, cuidando la afinación y expresión, y participando en actuaciones ante el público. Todo este proyecto de música en conjuntos está liderado por Margarita Lorenzo de Rezábal, quien dirige la Orquesta Titular del Conservatorio y la del Grado Medio. Además, durante este curso hemos dado un nuevo impulso a los instrumentos de viento, introduciendo la enseñanza del trombón y contratando a un profesor especializado en dirección de banda.

Pero su proyecto coral también es ambicioso, ¿no?

Siempre hemos puesto mucho interés a la expresión artística coral. No en vano, la Coral San Juan Bautista fue la precursora de este Conservatorio Municipal de Leioa. Todo este proyecto coral está liderado por Basilio Astúlez, quien además de dirigir a la Coral San Juan Bautista hace lo mismo con otros cuatro coros de categorías inferiores. Todos ellos integran unas 200 voces. Para este curso, Basilio cuenta con la colaboración de una profesora de canto y una ayudante de dirección coral. Y también hemos creado la Esco -

Datos del conservatorio

- 600 alumnos: 240 en la primera etapa común; 55 en enseñanza reforzada orientada hacia el acceso a la enseñanza reglada; 200 en una enseñanza lúdica y amateur; 105 dentro del Conservatorio propiamente dicho, siguiendo una enseñanza reglada de Grado Medio.
- El 75% de nuestros alumnos son vecinos de Leioa. Se imparten 16 instrumentos, con una plantilla de 40 profesores entre los de jornada completa y los de contrato a tiempo parcial.
- El presupuesto ronda los 190 millones, de los que el Ayuntamiento aporta alrededor de 100.
- Disponemos de 3 orquestas, 2 bandas, 5 coros, 1 banda de txistularis, 1 conjunto de guitarras y otro de acordeones.

lania "Kantika", compuesta por 35 voces infantiles seleccionadas, que dará su primer concierto el 20 de Diciembre en la Iglesia de San Juan Bautista.

¿Y qué supone el impartir el Bachillerato Integrado de Música?

Este es el 2.º curso en el que estamos constituidos como Centro Integrado de Bachillerato Musical, proyecto desarrollado conjuntamente con el Instituto Jose Miguel de Barandiaran. Somos pioneros en todo el Estado español. Este proyecto constituye la solución ideal para no recargar la doble jornada lectiva de los estudiantes de música, ya que los dos tipos de estudios lo hacen en nuestro Conservatorio, porque los profesores del Instituto se desplazan a nuestro Centro. Con eso consiguen un gran ahorro de tiempo.

¿Qué representa para nuestro municipio el poseer un Conservatorio?

Pienso que la música es una de las señas de identidad de Leioa, un pueblo que siempre ha amado y disfrutado con el arte musical. Una población constante de 600 alumnos genera a lo largo de los años, entre ex-alumnos y familiares, que un gran porcentaje de vecinos de Leioa estén involucrados con la música. Cabe destacar como

**Leioaren
ezaugarrietako bat
musika da. Herri
honek
beti maite
izan du
eta gozatu
musikaren
artea**



significativo el hecho de que bastantes de estos ex-alumnos son en la actualidad músicos profesionales, y que cuatro de ellos son profesores de nuestro propio centro. Nos esforzamos en que nuestro Conservatorio imparta una educación musical de calidad. Para ello contamos con un profesorado motivado y cualificado y con el apoyo incondicional de nuestro Ayuntamiento.

¿Es la senda a seguir?

Sí. Leioa se distinguirá cada vez más de otros muchos pueblos, pues aquí, en un futuro muy cercano, la Música

impregnará la vida de la mayoría de sus vecinos.

¿Cuáles son los planes de futuro?

Nuestra meta, de aquí a 10 años, es contar con unos 650 alumnos como máximo. La Escuela de Música (enseñanza no reglada) estaría compuesta por 520 alumnos y el Conservatorio ejercería como Conservatorio de Grado Medio de la Margen Derecha, integrado en la Red Pública de Conservatorios de Grado Medio, que esperamos sea creada recientemente por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco. ■



ALSA

•
•
•



“é”
“”



í . o